# Udabaŕi loratsu...

Igazko udaguena zeiñen mingaŕi izan yakun! Udaguen ankeŕik egin euskuan zauria, oindiñokaŕen odol-goŕitan yuagu gure biotza.

Paxista zital! Zuek egindako bizi-iñausteak, zeiñen mietzune bete-eziñak laga yauskuzak gure elerti-baratzean...

Gure elerti-baratzeko mietzune-gomutea, zaztadaka dogu gau ta egun gure biotzetan.

Elerti-baratz oŕetan geure poz guztia genduanok, baratz oŕetako tantairik edaŕ ta gendoenatarikoen iñausteak, guztiz mindu ginduzan.

Gure baratzoi itxusitu ta ondatu naiz egindako bizi-iñausteok, kirioak tan-ten eta biotza leŕ-egin-agiñean ipiñi euskuezan. Bizi-iñauste oŕeik ikusi ostean, bizi-galtzeok ayertzeko edo bengetako gogo bizia sortu yakun.

Agertzeko aldia oraintxe dogu baiña...

Bengatu giñeikiue.

Bidegabeko bizi-iñauste oŕeik, bide, gure elerti-baratzeko beste zugaitzak beren igaŕtuko zirala uste izan eta eben?

Egis pozgaŕi izango litzakiue, udabaŕi onetan gure baratzoi lora gabe balekuse...! "Oŕa gure bizi-iñausteak zeiñen ondoen edaŕak ekaŕi dauzan", esango leuke euren kolkorako.

Udabaŕian gaituzu, ene irakurle.

Bizi-indaŕik daukan zugatzari, lorez ornduta agertzea yagokon aldia dogu udaberian. Eusko-elerti baratzean, be, lorak agertzeko garaia dogu.

Euskal-olerkari! Zuk zeureak agertu beaŕa dozu. Laster yatortzu zeure egun bereziok. Egun oŕetan lorez inguratuta ikusiko al zaitugu.

Udagurenean bizi-iñausteak ayertzeko gogo nabaitu zenduan. Oŕa orain ayertze oŕi egiteko ankerea.

Paxista zitalok egindako mietzune oŕi beingoan ezin ornidu daike. Naigabetuon biotzak laña beste pozbide bat izan daike.

Baratzoi loratsu ikustea izango leuskigu pozgaŕien eta pozbiderik edaŕen.

Oraiñarte lora gabe ikusi izan doguzan baratz zokoetan lorak ikustea da gure aurtengo ames zoragaria.

Oraiñarte gazteegi naiz alpeŕ izan diran zugatzen adaŕ-arteak lora apaingaŕiz, igali biurtuko diran loraz ikustea litzakigu zorionik aundien.

Gure baratzean sortze baŕiak ikusi nai doguz. Olerki jatoŕen zain gaituzuz. Gure olerkariok, baratz oŕetako lankide gaituenoi, pozbide oŕi ez al dauskue ukatuko.

ARETXINAGA.